

EROTAETXE'TAR IÑAKI

ZULAI BAR'TAR YOANE ANTONIO'REN

BIZITZA TA EGINTZAZ

◉ JAUNGOIKO - ZALE'REN ◉

◉ ◉ IRARKOLAN ◉ ◉

◉ ZORNOTZA ◉


N-315112

ZRV
6291

ZEANURI

AITA ZULAIBAR'EN GORALBENEZ

EGINDAKO YAYAK



Bere bizitza ta egintzaz

Eriko zelayan

EROTAETXE'TAR IÑAKI'K

egindako itzaldia

1926'ko Dagonila'ren 15'an

Zornotza'n—Jaungoiko-Zale'ren irarkolan.

Foru Liburutegia
Biblioteca Foral

DOHAINTZA
DONATIVO

Data/Fecha **2013-11-11**

KEANURI

ATA LULUBAN EN CONNRENEZ

EGINDAKO YAYAK

Deo piztas ta egintak


Ekain zelatun

EROTATXETAR INAKIX

egintako itxiala

1958ko Egutia

Errotatxetaren itxiala



GMEN aurkitzen zarien gustiok, Zeanuri'ko biztanleok, Udal edo Ayuntamentu'ko gela nausian, ikusi izango dozue ari lau bat orman ezañita.

Bere idazkuna latinez dauko, eta gure berbetaz auxe esan gura dau:

«Zeanuri'ko seme Domingo Santua'ren Anaidi edo Ordenako


ZULAIBAR'TAR YOANE ANTONIO


Gizaldi aonen asieran, erlejiño-zabaltzale, yakitun, biozpera eta esku zabala zala, ta txalo asko irabaziz, Filipinas Ugartean, Manila'ko Gongotzaingo edo arzobispadua eroan-eta, bere ya-yotzako (LXXI) irurogeta amaikagařen urtean, (MDCCCXXVI) miła zortzireun eta irurogetalaugařen urtean il zanaren gomuta ta goralbenez.

Ain bikain, argi ta efikideen gorabidearen gomuteak, ondo-rengoengan iraun dagiantzat.

ZEANURI'KO UDALAK

Kristo'ren (MDCCCLXXXVI) miła zortzireun ta larogetaseigařen urtean ariari ezañi dautso deduzko ezaugaři auxe,






Ari ofetan izentetan dana, Zeanuri'ko seme argia, Aita Juan Zulaibar eta Aldape da, eta gaur bere efitarok, bere eriotzaren eun urteurena gomutetan dogun ezkerro, beronetzaz zerbait esatea, nire izaldiaren gaya izango da.

Ari orek esan gura dau, Zeanuri'k bere seme ospetsua orain baño lenago be gomutau izan dauela.

Orain 43 urte, 1883'garén urtean Erötaetxe'tar Luis nire aita zanak, Ayuntamentuari esan dogun gomuta-aria ipintea eskatu eutson, eta berak ofetan lagundu eban. Gure efitar andiaren gomutea goratuten nator, biotza pozaz artuta dodala, Zulaibar abizena be, deduz edo ondraz, daroan Erötaetxe'tar sendiaren izenean ordu onetan natoñelako.

Auréragoko aldi baten, Aita Zulaibar'en eriotzea zala-ta, Udal edo Ayuntamentuak bere arimearen alde eleizkizun andiak egin zituan. Eta bera bizi zala, Manila'ko Arzobispo izentau ebanean, 1803'garén urtean, eña baturik orduan batu oi zan tokian, Eleiza Nausi ondoko Ortu Santuan, kanpayaren deira erabagi eben zorion-opak berari bialtzea, ain gora yaso ebelako, baita bere yayotetxean gomutagari - idazkunak imintea, baita Etxebariko lenagoko eñiko etxean, baita eñiko Eliza Nausian. Idazkun areek orain 40 urterarte iraun eben, baya gero galdu egin dira; makaltxo iminita egozalako.




Aita Zulaibar'en gurasoak izan ziran, Francisco Zulaibar eta Emaldi eta Josefa Antonia Aldape ta Aldayaren, biak Zeanuri'n yayo ta bizi ziranak, Aregia izeneko euren etxaguntzan, Ibarguen'go kofradian, eta Aita Zulaibar 1753'garén urtean etxe ofetan yayo zan.

Areba bakar bat izan eban, Maria Josefa Zulaibar, berau Bartolome Isidro Erötaetxe, Orozko'ko semeagaz eskondu zan eta Aregia etxean bizi izan ziran.

Aita Zulaibar yayo zan etxean bertan, yayo zan, geroago, Erötaetxe sendiaren buru izan zana, Jose Ramon Erötaetxe, berau geroago, gaur gure sendiarena dan Zubiate etxera eskondu zan.

Jose Ramon Erötaetxe au, gure au'eragoko mañan izan diran Erötaetxe'n aitata zan, D. Ramon, Dña. Elena, Dña. Maria eta D. Luis nire aitarena.

Beraz, Aita Zulaibar'en a'rebea, gaurko Zubiate'ko Erötaetxe'n biga'ren amandre zan, eurok izenik seniderik urkoenak.



Asunsiño'ko Andra Mari oingo Eleiza onetan orduan aundi-tu ta ba'iztatua, Aita Zulaibar yayo baño urte bi lenago to'rea amaitu zan ba ta, ortxe bertan, asi eban berak, bere otseintza Yaungoikoa'ren etxean.

Zeanuri bardingabeko eri onetan, yayoriko beste seme asko legezt, edo abade egin edo praile sartu, ta mundu gustian sakabanatu diranak, Yaungoikoak zelako bendeziño ugari ta berarizkoak eri onen gañera bialtzen dituen erakusten lez, Aita Zulaibar bere, sakristau-mutil izanak eta o'regaitik safi eleizan egoteak eraginda, bere bizitza Yaungoiko'aren otseintzan emotea erabagi eban.

Eleiz-mutilen zeregiñak, au da, mesa-eraso, kanpayak yo, kandelak izetu eta onelakoak, betetan eben Zulaibar'en ume aldia, bere gorputza ta adiña zabaltzen ziran bitartean.

Zulaibar gasteak amasei urte igaro zituan bere eri onetan, bertatik betiko urten baño lenago, eta Bizkaya'n bizi izan zan aldi baka'ra dan ezkerro, orduan gure alde onetan izandako yazoera batsuk aitatuko doguz, bertoko biztanleai zauskada aundia eragin eutsien yasoerak.

Aldi aretan, eta 1745'ga'ren urtetik asita, Fernando VI^a zan Bizkai'ko Yaun. Au, Aita Zulaibar'ek sei urte eukazanean il zan, eta 1759'ko uriko 4'n Gernika'n Karlos III Bizkai'ko Yauntzat autua izan zan.

Andik laster, 1762'n urtean, Inglateŕa'ri geŕea ipini yakon, eta Bizkai'ko Diputaziño edo Aldundiak, Batzar Nagusiaz batera aginpidea eukanak, erabagi ta agindu eban: «18'tik 60 urtera bitarteko gizonezko gustiak, bakotxa beraren fusil, bayoneta, polbora ta balen yabe egiteko, eriz-eri konpañiak egiñik, alantxe egin zan lez». Agindu onek, yakiña, Aita Zulaibar ezaban aŕa-pau, gasteegia zalako.

1767'n urtean izan zan aldi aretako yazoerarik aŕigañieneta-ko bat, Jesuitak España ta bere kolonia gustietatik kat.pora yaurtitea, Karlos III'n Eŕegearen aginduz. Egitada negargafi onen aurka bizi-bizi Aita Santua yagi zan; baña katolikoen lotsarirako, egitada oŕegaitik eŕegeari txaloak yo eutsiezan obispo batsuk izan ziran. Gure Euskal-eŕian aurkitzen ziran Jesuitak be, erbestetuak izan ziran, eŕi batsuetako aginpidedunen tratu txaña emonaz, eta alde gustietan euken gustia kenduaz. Ordutik aurrera, Bilbao'ko Jesus'en eleizea, gaur ezagutzen dan Santos Juanes paŕokia biurtu zan.

1768'n urtean, Bizkai'ko baseñietan, eta Zeanuri'n be bai, «txargiñarto» deitzen yakon arto klasearen ereitea egin zan. Gogoan euki bear da, ondiño urte gitxi zala Bizkayan artoa ezautzen zala. Lenago etzan ezautzen artoa ba, Amerika'tik ekaña da. Eta andik mota edo klase askotakoak ekari ziran legez, probak egin bear ziran, areitalik Bizkai'rako onena zein izango ete zan yakiteko.

1770'ko urtera eltzen gara, Eŕegeak euskaldunei kintak ipiñi gura izan eutsezan, eta Bizkai'ko, Araba'ko ta Gipuzkoa'ko Diputaziñoak eta Batzar nagusiak, ezeben agindu ori bete gura izan, lege zar edo Foruen kontra zalako. Eta oŕetan eurak eta euren oñordekoak adoretzu yañaitu eben, uŕengo eun urteetan, bere, 1776'gaŕen urtean Foruen kentze zoritxaŕekoa etofi arte.

Aitatu dan 1770'gaŕen urtean, Aita Zulaibar'ek 16 urte zituan; bere deyak abadetzaŕa eroyan.

Baña oartu bear dogu, orduan abadegeyentzako seminarioa Eŕioja'n egoala, Kalaŕa'n edo La Kalzadan edo Logroño'n;

ain urin egote orek e. agozpen asko euskaldunentzako ekañela eñez igarten da.

Zulaibar'ek nora yo erabagi eban, eta Dominikoen Ordea autu eban, eta Burgos'ko S. Pablo'ren komentuan sartu, lekaide edo fraile yantzia 16 urtegaz arturik.

Konbentu oñetan Aita Zulaibar'ek gustien goitik bereala burua atara eban, Ordea'ko arau aginduak betetan, bere adimen argiagaitik eta ikasten eukan zaletasun andiagaitik. Eskintza edo profesa egin eban, eta malarik gorengoan yañaitu eban Humanidadeak, Filosofi ta Teologia. Ordendu zan eta bere lenengo Mesa emon eban komentuan sartuta amargaren urtean.

Nausiak fraile gaste aren buru argi ta yakituria ezaguturik, ordurarte ikasle izan zana irakasle imini eben, eta S. Pablo komentu aretan bertan Filosofi ta Teologia irakatsi zituan.

Komentu aretan Zulaibar Aita 26 urte bizi izan zan eta eurotatik 15 urte, irakasten.

Aita Zulaibar'ek, apala ta ixñla zalako, goi-lekurik ez eban gura; baña bere nagusiak berari yagokozan tokiak betetea gura izan eben, eta Irakasle edo Doktor-txapela artzeko agindu eutsen, eta alantxe esangintzaz, Abila'ko Irakastetxean Teologia'n Doktor egin zan.

Bere Doktoradua irabazi ebanean ospe ta entzute andia euki eban, eta Duke Medinazeli'k bereala izentau eban, 1796'garen urtean, Alkala de Henares'ko Universidade edo Irakastetxe Nagosian, «Visperas de Santo Tomás» katedran irakasteko.

Yakintsuen artean Aita Zulaibar'ek norañoko goyerea artu eban igarteko, Alkala de Henares Irakastetxeak zelango entzutea eukan orduan, gogoan euki bear da.

Irakastetxe au Kardenal Zisneros'ek irasi edo fundau eban, eta irakaslerik urtenenak eukazalako, alde gustietako gasteak ikasteko zaletasunez bertara yoten eben. Loyola'ko Iñazio deuna be, ikasteko lekuri onenera lez, Alkala'ra yoan zan, bertan baita berak eukan asmorako lagunak aurkitzeko usteaz.

Ezin ikusi izan eban, eta bere santutasuna ezagutzen ez eben

abade eretxi batsuk aurrean artu eben, eta kartzelan sartzea lortu be bai, eta gogait eginda alde ein bearean aurkitu zan. Baña ikasleen artean topau zituan geroago bere Lagundiko lenengoak eta urtenenak izango ziran Lainez, Salmeron, Bobadila eta Martin Olabe, Esteban ta Diego Egia euskaldunak, azkenengo au Aita S. Inazio'ren autorle edo konpesore izanik.

Orenbeste entzute euen Unibersidadera deitu eutsen Aita Zulaibar'eri eta bertan izenik andiena eukan Teologia'ko Irakastokira. Orduko aldian Unibersidade gustietan Teologia'ko Irakastokia izaten zan, eta beti gizon yakintsuenentzat gordetan zan, gaur Ordea'tako etxeetan egiten dan legez.

Gure beste eritar Aita Uraburu gogoratuta esan leike, au filoposia'n letxe, Zulaibar Aita baxotxa bere aldian teologorik andiena izan zala.

Unibersidade oretan asieratik Teologia'ko Irakastegi bi egotzan, beti Dominikoak irakaslari izanik. Alantxe yafaitu eban Teologia'ren irakaskintzak aurreantzean be urte askotan, eta beti irakatsi izan zan euren «Tomismo» utsal «Molinismo ta «Suarismo» bapere barik.

Aita Zulaibar, Alkala'ko irakaskintza oretan saspil urtean ibili zan. Dominikoen etxean bizi izan zan; uri aretan bertan euen beste irakastetxe bat, izanik etxe biak oso andi ta ederak. España'tar agintari liberalen arapatzekeriagaitik eta erlejiñoezagaitik, komentua kartzel edo audentzia biurtu eben, eta kolejoa espetxe edo presidio egin eben, frailei ostu ta kanpora bota zituenzanean.

Aita Zulaibar'en izena ondiño be geyago goratu zan, Manila'ko Gongotzaintza edo Arzobispadua utsik geratu zanean, España kolonietan andienetarikoa zana, eta Karlos III'ak 1803'ko abuztuan angongongotzain izentau ebanean.

AITA ZULAIBAR'EK FILIPINETARA BIDEAN

EROYAZAN ASMOAK

Aldi aretan Filipinetara, aize-oyaldun ontzietan ibiltzen zuten itxasoz, eta Kadiz izaten zuten geyenetan, bertaratzeko ontziak urteten eben kaya.

Oiturazko, eta esan lei beaŕizanezko bidea auxe zuten: Kanariar ugarteak bitartetik igaro ta «Cabo de Buena Esperanza» Aprika'ko mutura itzulirik, Mozanbiki istun edo kanala aŕapetan zuten, biztanle bako San Pablo ta Amsterdam ugarteak ondotik, eta Sonda ta Gaspar ugarteak zear, Txina'ko itxasora yotzen zuten eta bertatik laster Filipinetara.

Eragospen andirik ezpaegoan, 5 edo 6 ilabete beaŕ izaten ziren arano eltzeko; eta saŕi-saŕi askoz geyago.

Bide ain luzean itxasoaren bakartadean, era egokia eukan euki bere, Aita Zulaibar'ek eroyan zeregiŕa gogoratu ta aztertuteko.

Ozeania'ko ugarte urŕinetara, Ebanjelioa eroan beaŕ dabene mixiolari euskaldun baten biotza, ezin erazo lei, bertako biztanleak kristiŕnaututeko ezaŕi yakon ardureak baŕio geyago; urŕin, meatz, eta leku eldu gaitzean bizi diralako, oraindiŕio kristiŕnautu barik dagozan biztanleakana yoateak baŕio.

Aita Zulaibar'ek, mixiolari ta gaŕnera euskalduna zuten ezkeror, ezin aitzu eukean, (1521) mila hosteun eta ogetabatgaŕen urtean, Filipinas ugarteak aurkitu zituen Magalanes eta Elkano' gaz batera yoaniko abaderen batek, an Meza Santua lenengoz emon ba'eban bere, alde aretan, eguzkialde urŕineko beste leku asko ta askotan legez, kristiŕnaukuntzea, Indietako Apostolu bardinbakoak asi ebala, Prantzisko Xabier'ek, gure Santu andiak, gurea ta gustiz gurea, euskaldun andi ta euskaldun utsa zanak.

Euskaldun uts-utsa zala Xabier diŕiot, eta olantxe izan zuten,

izan bere, Yatsu ta Aspilkueta'tar Prantzisko, Napa'oa'ko Xabier Gasteluan yayo ta bizi zanean, Napa'oa, iñoz andi izaniko eta agintari bakar baten legepean, euskaldun gustiak batu ginduzan bakalderi edo «monarquía» euskalduna, azke egoan ondiño-ta; eta Prantzizko bera, (Yaungoikozko zeregiñetan sartuta egoalako edo ez a'ren) bere senideak, eta bere anayak batez bere, eskuetan armak artuta, Napa'oa'ren azkatasunaren alde gustiz gogotsu yardun eben.

Aita Zulaibar'ek, mixiolari ta euskalduna zan ezkerro, ondo igarten eban zein astuna zan Xabier'en lanari ya'raitutea.

Gure beste Santu andi batek, Loyola'tar Inazio'k, Paris'en batera'ikasten, alka'regaz euskeraz berba egiten ebela, ebiltzanean, Xabier susitu eban, eta onantxe erabagi eban onek bere bizi gustia, Zeruko E'regeari eskiñi ta emotea, ta onantxe, bere gogo sendoaz arturiko erabagia ondo beterik, lu'reko alde gustietatik ibili zan, ziñestea zabaltzen, eta onantxe, (1542) mi'la bos-teun eta biga'ren urtetik atxiña Indietan aurkituten zan, eundaka mi'la gizakume bateatuten zituala. 1542 ta 1552'ga'ren urte bitartean berak egindako lanak andi-andiak eta ainbesterañokoak ziralako, gaitz da eurak ondo ta zeatz yakiten, eta oraintxe Asunsiño edo Yasokundez (377) irureun eta irurogeta amasaspi urte dirala, Yapon'era eldu zala dakigun a'ren, ez dakigu o'ren ziur Filipinetan Ebanjelioa irakasten noz egon zan; bai-dakigu o'raitziño—antxiñako esana da-ta—Mindanao ugartean egon zala eta «Cabo de S. Agustín» deritxon tokian Mesea emon ebala.

San Xabier zan beraz, Filipinetan lenengoz ezauturiko Ebanjelioko irakasle ta zabaltza'jea.

Bertako kristiñau Artzain lez, Aita Zulaibar, beste euskaldun baten ur'engoa izan zan, Urdaneta Andres giputzarena. Bi'lafranka de Oria'n yayoa zan berau eta itxasotar aitua zalako, Filipinas ugarteak agertuten eta munduari lenengoz bira egiten Elkanori lagundu eutson. Geroago agustindar pra'e egin zan eta itxasokuntzan ospe andia ebalako, España'ko E'rege Felipe II'ak, au'reko txango edo yoan aldiak gauza etzireala izan eta, Ozea-

nia'ra beste yoan aldi bat gertatzeko agindu eutsen. Arantza yoateko gertau zan ontzidiaren buru Urdaneta'ren eskariz beste euskaldun bat izentau eban, Legazpi'tar Mikel, Zumañaga'koa. Urdaneta bera lekaide Prañe zan arñen, ontzidiko pilotu nagosia izan zan, eta era batera, sei prañe agustindañez antxe zabalduko zan komentuko buru; sei prañeotatik, iru euskaldunak ziran: Aita Agirre, Aita Erada eta Aita Ganboa.

Eta biotza pozez betetetan dausku, Aita Zulaibar'ek bere ardurapean euki zituan erri areetan, bertara lenengoz yoandako gizonen berbetak eta erreguak, geuk egunero darabilgun, geure euskera maite onetan izan zirala, gomutateak.

Berak esan euskun eta, Xabier deunak beti euskeraz errezetan ebala dakigu; eta ziurtzat euki lei, Aita Urdaneta eta bere lagunak beste ainbeste egingo ebela.

Mixiolari lez gorengo lekuan egoan arñen, ondo igarten eban A. Zulaibar'ek ziñopa edo martirien koroe gurena yadetsi zitekeala, euren sanetako odolaz Filipinetako luñak busti ebezan mixiolariak asko ziran-eta. Bere Ordean bakarrik, Dominikoetan, (112) eun eta amabi martiri izan dira Filipinetan, eurretatik (50) berogetamar baño geyago altaretan dagozanak. Andik urñin ez egoan Tonkin'go luñean, il eben geroago bere Ordeako anai bat, Obispoa berau bere, Eloyio'ko Semea Beriotxoat'ar Balentin.

Baita gogoragarria da, Manila'ko lenengo Obispoa, (1581) milã bosteun eta larogeta bat'garñen urtean, Domingo Salazar izan zala, dominikoa A. Zulaibar legez, eta euskotarra berau legez, arabara zan-eta.

MANILA'KO GONGOTZAIN EDO ARZOBISPO LEGEZ EGIN EBANA

(1804) Milã zortzireun eta laugarñen urteko Iraila'ren 2'an eldu zan Aita Zulaibar Manila'ra.

Bear ziran baipenak urte aretako Marti'ko 22'an emon zituan Aita Santu Pio saspigarñenak.

Gotzaintza, Manila'ko katedralean egin zan, (1804) mila zortzireun eta laugarfeneko Garagarila'ren 14'n, konsagratzalea, beste dominiko bat, Nueva Caceres'ko Gotzain Yaun, Fray Domingo Kollantes zala.

Manila'ko Obispadua (1581) mila bosteun eta larogeta bat gařen urtean yaři zan lenengoz; eta bertako obispoetalik Aita Zulaibar ogeigarena izan zan.

Gaur, Arzobispadua da; eta bere ardurapean daukan luf-zatia ikusgaria da; urean munduan diranetatik andienetarikoa.

Arzobispoaren menpeko, lau Gotzain egozan, eta Arzobispadu edo Gongotzaintzak berak bakarik (219) befeun eta emere-tzi parokia eukazan. Gustira Ordea edo Gopatz askotako (2.333) bi mila irureun eta ogeta amairu prale egozan.

Aita Zulaibar Arzobispo zala (1.810) mila zortzireun eta amargařen urtean, egindako zenbakuntza edo zenso baten, Manila'ko eliz barutian (2.526.000) bi miloe, bosteun eta ogetasei mile katoliko agertu ziran, gaur Bitoria'ko gure eleiz baruti onetan baño iru bider geyago, eta Euskaleriko iru obispaduak batera daukezan baño, bi bider geyago.

Aldi atan Filipinetan gora-bera andiak izan ziran, eta bake gitxi ikusi zan; onan zala ta gaur goralduten dogun efitarak, bere Yaungoiko-zaletasuna, bere adimen argia, bere yakituri ta bere biotza agertu ta erakusteko era ona euki eban, obispo gotzain lez, mixiolari lez eta agintari lez.

Aita ta Gotzaña zanez, maitasunezko erakusbide ederak emoteko erea izan eban eta gauza afigariak egin ebazan,

Mila zortzireun eta ogeigaren urtean, kolera ixuria agertu zan Manila'n, eta izugari zabaldu zan, asko ta askoganaño eldurik. Gexotasun onek erazo eban bilduraz, mundu gustia batera ta bestera, ara ta ona, igesean asten zala ikusirik, Aita Zulaibar'ek gexo areik erietxera eroan eta bear zanez zaindu ta atonduteko ardurak beragan artu zituan; eta bai erietxeetan, bera izan zan izan be, aurenengo eta kementsuen ibili zana, gexoai eleiza-

koak eta Erlejiñoaren laguntza ta gozotasuna eroanik, gatxaren bapere bildur бага.

Onantxe zeregin eta alegin onen txalogañian beste prale askok lagunduten eutsoela, erriaren adorea bizkorlu, eta Aita Zulaibar'en izena lotsa andiz aitatuten eben Manila'taren artean.

(1.814) Miła zortzireun eta amalaugar'en urtean, Mayo eritxon sumendi edo bolkanak, bere barutik iñondiko su ari ta goritasunak yaurti zituanean, eta (1.824) miła zortzireun eta ogetalaugar'en urtean, lur ikara andi bat Manila'n izan zanean, Aita Zulaibar bete-betean gizagaizo erukañiei lagunduten alegindu zan. Eta bera aurti zala, mailasun andiaz gusliai erakuspide ona emonaz, bere agindupekoan min eta kalteak, egokiro arindu zituan.

(1.813) Miła zortzireun eta amairuan, Aita Zulaibar'en aginduz eta laguntasunez, Laoag deritxon tokian legenardunenizat Filipinas'etan eregiriko lenengo gexotegia idigi zan.

«Opio» izendun bedara ereteak, bere ardurapeko erriari, gorputz eta gogoan zenbat kalte ekartzazan ikusirik, eskatu eta lortu eban (1.814) miła zortzireun eta amalaugar'en urtetik atxiña, Filipinetan bedar ain kaltegaria saritzea debekatzea.

(1.808) Miła zortzireun eta zortzi eta (1.812) miła zortzireun eta amabi'gar'en urtean, Filipinas'etan gosete andia izan zan, jenterik geyena goserik ikaragarienean aurkitzen zala, eta orduan bere, Aita Zulaibar'ek, ezeukiekana biotz andiz yota, bere ta Arzobispaduko diruak esku zabalez eralgi zituan; onetan bere, alde aretako prale orde gusliak beste ainbeste egiteko erazoten zituala.

(1.823) Miła zortzireun eta ogeta iruan, Rekoletoen Probinzia la beste prale batgaz batera, moroak katigu artu ebela-ta, bitsuok erosteko bear izan ziran amar miła ogerlekoak be, Aita Zulaibar'ek berak bakarik emon zituan.

Gizon yakintsua ta yakinzalea zan eta, erriaren irakaskuntzeari ta yakiturien auferatasunari aloso zabaldu eutsozan bide egokiak. (1.817) Miła zortzireun eta amasaspian, ango prale ta monja komentu guslietan, (izan be ez zirean gitxi eurok) mutiko

ta neskatoentzat eskolak zabaltzea agindu eban, onan erriaren ikaskuntza asko ta asko auferatuaz. Manila'ko Santo Tomas'en ikastola Nagosi edo Universidadeari berariz lagundu eutsan. Ikastola ori, eun urte lenago idigi eben Dominikoak, Aita Zulaibar'en Ordeakoak; beronen aldian be euren eskuan aurkituten zan, eta Aita Zulaibar'ek, bertan emoten zan irakaskintzea, gorango malakoa izatea gura izan eban, Ordearen izena goralduaz batera, luñalde aretako ikastolarik onena egitera aleginduten zala.

(1.821) Miñ zortzireun eta ogetabat'gañen urtean, oraindaño Manila'n dirauen «Nautika» edo itsaz-yakintzarako ikastolea zabaltzen bere, gogoz ta adoretzu lagundu eban.

Baita Arzobispaduko Seminarioentzat bere, diru ugariak emon zituan abade ta yakitun zuñak gertutea lorturik; eta oraindaño be, Aita Zulaibar'ek eta beronen Seminario oñek ango Gongotzaintzari ekañ eutsazan onurak eta obariak biziro diraue Filipinetako abadeen gomutan.

(1.813) Miñ zortzireun eta amairugañen urtetik (1.816) miñ zortzireun eta amasei'gañen urtera bitartean, Jose Gardoki ta Jarabeitia, euskotañ au bere, izan zan Filipinas'etako Gobernadore nagusia; eta ez zan izan uñia Aita Zulaibar'ek emon eutson laguntasuna, ango lugintzari auñerakuntzea emoteko erabili zituan alegiñetan.

Filipinas'etako ugarteia España'rentzat artzea, ta bertako luña landutea, amasei'gañen gizaldian egin zan; baña onean, bacean; ez Amerika'ko leku aspiratzean yazo zanez gogorkeriz eta odolez. Filipinas'etan yazo zan alan, bertako lenengo agintariak, Legazpi ta Urdaneta Euskotañak, gauzai zuzen eta goi-goitik begiratuta, bertako jentea gure erlejiño egiazkora ekañ ta bear dan lez bizi izaten erakustea baño beste asmorik eta gogorik euki ez ebelako; aldi aretako, beste lur agertzale ta lur irabazle askoren aberastu beañ eta diru grña euki ez ebelako.

Oñegaitik Ameriketa aldean, baketsu ta anaitasun andian bizi izan zirean Filipinetañak. Alan da gusti bere, Aita Zulaibar'

en aldian sortu ta yazo zirean bertan matxinada edo zalapartaren batsuk, baña berak eukan entzute onaz, eta bere anditasunak emoten eulsan aginpidez, zalapartok baketuten ederto ta egoki eragoyon, batez bi ba aldiz; bata (1.820) miła zortzireun eta ogeigaren urtean, matxinatuak edateko urari, kolerea sortzeko gogoz, edena ezari edo nastetan eutselakoan, 28'giño ingles eta prantzez il ebezanean; bestea, (1.823) miła zortzireun eta ogetairu'garen urtean, Nobales kapitaya buru ebela, Filipinetako Kapitan Jenerala zan Fernandez Folgeraz'i eriotzea emon eutsoenean.

Orduko aldietan, Filipinetako erialdea eukan gobernueran, praleak, parokia geyenetako abade izanik, arimak zaintzeko ardurea eurekan eukien afen, beste ostantzeko arduretan sari eragoyoen, zuzen ala oker eztaigu, baña bai inoz armadunen buru izatera eldu zirala. Alan ikusten doguz prale bulartsu areik (1.807) miła zortzireun eta saspigaren urtean, «Ilokos-Norte»n yagi zan zalapartea azpiratu ta ezereztuten (1.809) miła zortzireun eta bederatzian Bangas'ko parokoa, indio iskilu edo armadunen buru zala, euren aurka yoan zan «Montxe»goleta frantzeza baitu edo preso artzen; (1.812) miła zortzireun eta amabian, fray Juan Bermejo, Boljoan'go parokoa, moro lapurak burukan yo ta birinduten; Aita Juan Prieto, (1.817) miła zortzireun eta amasaspian «mayoyao» basatien kontra yoandako gudari-buru. Ardura ta buruauste sakonak izan bear zituan Aita Zulaibar'ek prale'en batzuk Ordearen arau eta legeen baruan yarteko eta iraun erazoteko, baña lan ofetan, adoretzu ta zuurtasun andiaz yardun eban.

Ganera, aldi aretan España'n yazoten ziran gora-beren bari bere eltzen zan araño-ta, artegatasun eta armintasun egoan bertan; baña onetan bere, gure eritar Zulaibar'ek, eukan zuurtasun eta izaerea agertu eban. Alan miła zortzireun eta bederatzigaren urtean (1.809), aurkeko urteko Mayatza 2'enean España'n Prantzia'n kontra yagiriko geña edo gudaren baria edo albistea yakin zanean, eta geroago (1.812) miła zortzireun eta amabigaren urteko Konstituziñoa Manila'n argitaratu zanean, (1.814) miła zortzireun eta amalaugaren urtean Kadiz'ko Konstituziñoa ezerez-

tuteko yagi ziran zalapartetan, eta urte atan bertan ingelesak Joló ta Mindanao arapau gura izan zituenean.

Azkenez munduko bere egin-beara bete eban eta, Yaungoi-koak Aita Zulaibai'i deitu eutsen. Irurogeta amar urte zituan, eta befogeta amabost praletzan eroyazan, euretatik 19 Arzobispo zala. Adore andiaz, gustiai erakuspide edera emanaz, Eleiza-koak artu zituan, eta San Prantzizko Xabier'en antzera, bere gogoa Yaungoikoa'ren eskuetan ilxi eban.

Filipinas'etako ugartean bere erioizeak zauskada andia eragin eban, eta eri gustietan egin ziran bere arimaren alde eleizkizun ospetsuak.

(1.825) Mila zortzireun eta ogetabostgaren urtean, Erötae-txe'tar Jose Ramon nire bigaren aitaitak Zeanuri'ko Udalari yakin erazo eutsan, eriko seme argia il zala, ta Ayuntamentuak, bere tamala ta atsekabea agerturik, eriko eleizan, bere arimaren alde eleizkizun andiak egitea erabagi eban, eta egin ziran.

Gure efitar maitearen gomutea goraldiaz, Zeanuri'ko seme onai yagokona betetan dogu.

Aita Zulaibai'en bizitza yakitea, gureztat onuragaria bere izan leiteke. Bere bizitzan argi-argi agiri dira: birtute onbidea, zuzentasuna, yakituria. Praie ona eta euskotar ona izan zan.

Yaungoikoak gure izango al dau, gu bakotxa bere neurian aren antzekoak izatea.

1926'ko Dagonila'ren 15'n.

